NOR edo NORK motako aditzak

Irakurri esaldia. Bilatu aditza eta esan zer motatako aditza den NOR (1) ala NORK (2).

Nire ama joan da etxera.

Eskolan, zuek, asko ikasten duzue.

Amona Benidormera doa.

Suhiltzaileak familia bat salbatu du.

Haizeak zuhaitzen hostoak eraman ditu.

Iturriko ur garbia Maitek hartuko du.

Amak fabrika batean egiten du lan.

Oso polita da zure kotxea.

Autobusak matxura izan du.

Belarrez beterik dago lurra.

Zu ez zara korrikalaria izango.

Oilarrak kukurruku egiten du.

Haur txikiek esnea edaten dute.

Itsasontzia kaian egongo da.

Haizeak zuhaitza bota du.

Serantes mendia oso altua da.

Eguzkiak gure azala erre egin ahal izango du.

Zuek pijama jantzi duzue.

1 NOR

2 NORK